

altza

Santo Tomas berezia

**Eguberritako opor-
rrak** direla eta, Casares Kultur Etxea eta Larratzoko liburutegiari ordutegia aldatu egingo da abenduaren 19tik 1995eko urtarrilaren 8ra arte. Casareskoa irekia egongo da goizeko 10.00etatik 14.00ak arte eta ostegunetan arratsaldez ere bai 16.00etatik 19.00etara. Larratzokoa berriz, goizeko 11.00etatik 13.30ak arte erabili ahal izango da. Gogoratu gainera, abenduaren 22an liburutegiko jaia izango dela arratsaldeko 16.00etatik aurrera.

«**Altza hautsa kenduz II**» libururaren aurkezpena egingo dute arratsaldeko 19.00etatik aurrera Altza Historia Mintegiko kideek Casares Kultur Etxean abenduaren 22an.

Azoka gorria antolatu du Altzako Ezker Abertzaleak taldeak abenduaren 17an Josu Artetxe plazan, 11.30etatik 14.00etara.

Santo Tomas egunean Larratzon, Altzako baserrietako barazki eta abereen erakusketa, txistorra postuak, bertsolariak eta trikitilariak izango dira Josu Artetxe plazan goizeko 11.00etatik aurrera.

Paco Mateori omenaldi berezia egingo zaio beretzat hain berezia zen Santo Tomas egun honetan. Arratsaldeko 19.00etatik aurrera Josu Artetxe plazan txalaparta eta Barandiaran eta Artano bertsolariak izango dira eta

ondoren plaka bat jarriko da Askagiutzako lokalaren atarian. Lehenago, hilaren 18an haritz kimu bat landatuko da Txoritokietan bere oroimenez.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

**Irrati Tailerreko sarituak**

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuak ematen dituen Euskadi Sariak, Sustatu'94, banatu dira. Altza Irrati Tailerreko sarituek Maria Cristina hotelean jaso zuten lortutako diploma, plaka eta miloia. Jende ugari hurbildu zen sari banaketa ekitaldira.

Ezkerretik hasita atzekaldean: Agustin Hernandez, Javier Vigara, Carlos Alzueta.

Aurrekaldean Larraitz Garmendia sari guztiak bi eskuekin eusteko ahaleginak egiten.

INTXAUSTI DIETETIKA

jaki osasuntsu eta
naturalak



Santiveri

Jose Elozegi, 120 Tfnoa.: 39 89 84

Valares

Altzariak • Dekorazioa
Liburudenda • Opariak

Larratxo Pasealekua, 14 behea
Tfnoa.: 39 14 11

jaupe

LUIS MARI JAUREGUI

liburudenda/Paperdenda

Larratxo Pasealekua,
39/Tfnoa.: 39 37 78

Auzoan bertan duzu aukera!!



Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C
20110 PASAIA - TRINTXERPE
Zumardi Ibiltoxia, 14
(Bidebieta - 1)
20016 DONOSTIA
Telefonoa: 399877

IMANOL

HARATEGIA URDAITEGIA
GURE BASERRIETAKO HARAGIA

BERTSOLARI TXIRRITA, 14 • TFNOA: 39 29 40
ALTZA DONOSTIA



EDERKI - Tapiztegia

Etxe-eder
Herrera pasealekua, 20 Tfnoa.: 40 07 62